


JON ARRETXE

SATOR LOKATZAK



erein

SATOR
LOKATZAK

19

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-170-7

L. G.: SS-1176/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

JON ARRETXE

SATOR LOKATZAK

erein

Mahamoud Toureri eta bere familia osoari

I MANDATUA



1

Zeure burua aulkira bota eta, eguneroko ohikeriari jarraituz, gelako monitore ugarietara miaketa egiten hasi zara. Kamerek auzoko errealitatea islatzen dizute, betiko menua: ijitoak, beltzak, mairuak, sudakak, putak, yonkiak... Hor daude pilaturik kale-kantoi eta plazetan, lokutorio, denda nahiz teterien aurrean. Badi-rudi gaur txintxo dabilzala eta hobeto horrela, lan gutxiago zuretzat.

Orduak igaro dira, goiza kontsumituz doa gorabehera handirik gabe eta, azkenik, eguerdi aldera, kameretako bat Arteta farmaziarantz fokatu duzu. Erlojuari begiratu eman eta oraindik ixteko apur bat falta dela konturatu zara, eutsi beharko diozu beste minutu batzuetan. Denbora ematearren, puten eremuari,

Gorte kaleari, egin diozu azken azterketa. Betiko zerritonek betiko klub ezin miserablegoen inguruan ematen dute denbora, asper-asper eginda. Azkenaldi honetan, Espainiako hegoaldeetik nigeriar berriak ailegatu direnetik, kompetentzia handitu eta larru-jotzeak hamabost eurotan ere lor daitezkeela entzun duzu. Ez da harritzekoa, jeneroa ikusita: puta nazional batzuk zure amaren adinekoak dira, beste batzuk yonki eskeletikoak, eta exotismoa bilatuz gero zer daukazu? Bada sudaka amorfoak, edo afrikar zikinak... Ez zenuke zakila horrelako zulo baten sartuko ezta zeharo mozkortuta ere, urdanga horiei sartuko zeniekeen gauza bakarra zure pistolaren punta izango litzateke, barruraino sartu ere, eta gero pum!

Halako baten, zerbaitek erakarri du zure arreta, mugimendua sumatu duzu *Marilyn* klubaren alderdian. Prostituta batzuk asaldu eta korrika hasi dira, eta berehala jabetu zara arrazoiak: haien atzetik mairu bat doa, makila eskuan. Atoan ezagutu duzu: Boxeolaria da, beti praka militarrez jantzita ibiltzen den aljeriar bat, esaten dutenez ringetan txapeldun handia izango zena drogen menpe jausi ez balitz. Lerdo hori askotan atxilotu duzue eta ez da bizkortzen, gero eta hondatuago dago eta orain ez dauka bururik ezta gauera arte itxaroteko ere paloak emateko. Itsasgariak eta alkoholak zeukan zentzu apurra zurrupatu

diote eta hor doa, eguargiz, denen agerian, puten atzetik korrika.

Piztien dokumentaletan harrapariak iheslarien taldeko biktimarik makalena aukeratzen du, eta gaur, Gorte kaleko jazarpenean, horrelako zerbait gertatu da. Sudaka hankalabur eta ipurtandi bat saldoaren atzealdean geratu da eta horixe izan da mairuaren jomuga: zango trabatu eta lurrera bota du, eta hor dabil, makilaka amorruz. Gero poltsa kendu dio, zabaldu, sakelakoa eta dirua hartu eta berriro bota dio aurpegira, haserre, billete-kopurua espero baino urriagoa delako. Beste putei begiratu die, baina gehienak klubetan ezkutatu dira, edo urrunegi daude eta ez dirudi morroiak lasterka jarraitzeko gogo handirik daukanik. Ala bai? Oker zeunden, berriro abiatu baita beltz batzuen atzetik. Polizia on batek abisua pasatuko lieke patruilan dauden kolegei emakumezko babesgabei laguntzera joan daitezen, baina ze ostia, erlojua begiratu besterik ez duzu egin. Zu ez zara polizia ona, puta horiek bost axola zaizkizu, txanda-aldaketa egitear dauden kideak ez dituzu izorratu nahi eta, garrantzitsuena, beste ardura bat daukazu buruan.

Orain bai, bada ordua, bost minutu falta dira farmazia ixteko eta hauxe da momentu egokia. Monitoreari azken begiratua eman eta Boxeolaria ikusi duzu

puta beltz bati buruan makilakada ederra jotzen, ile-ordea erorarazi diona. Zu, haatik, aulkitik jaiki, txamarra jantzi eta, Afrika Txikiko bizitza kontrolatzen duen monitore-gelatik irtenda kalerantz abiatu zara. Espaloia zapaldu aurretik zigarroa ahoan daukazu eta plazeraz bete dituzu keaz biririkak.

Auzoari izena ematen dion San Frantzisko kalera ailegatutakoan, goiko alderdirantz abiatu zara. Espaloiak gizonezko langabez eta zeregingabez beterik daude, ohi legez. Batzuek ez zaituzte ezagutzen polizia-uniformerik gabe, beste batzuek bai eta ezikusiarrena egiten dute haien albotik igarotzen zarenean. Irriñoa atera zaizu, gixajo horiek guztiak kontrolpean baitauzkazu kamerek minuturo ematen dizuten informazio pribilegiatuari esker. Ederra da orojakilea izatea, guztiahalduna sentitzea.

Osman maliarra jo duzu begiz, Toure burkinarraren gelakidea, haren babeslea, haren aholkularia... Beste gixajo bat, azken baten. Bere lantokiaren atean dago, lehengusuaren lokutorioaren aurrean, te basokada eskuan. Ikusi zaitu hurbiltzen, baina ez dizu jaramonik egin albotik igaro zarenean; eta “gero arte, Osman” esan diozunean ez entzun egin du. Berriro atera zaizu irribarrea.

Whiskiaz hornitzen zaituen txinatar dendaren aurretik pasatu zara gero. Zure apeten arabera, ba-

tzuetan erosi eta beste batzuetan, gehienetan, ordaindu gabe eramaten duzu botila. Horregatik, barruko bikote gazteak gogo arindurik ikusi du gaur ez daukazula han sartzeko asmorik. Izan ere, zure helmuga San Frantzisko kalearen goiko aldean dago, Arteta farmazian, eta ezin duzu astirik alferrik galdu.

Botikan sartu zarenean bizpahiru minutu falta dira ixteko, eta apalategietako jeneroari so eman duzu denbora, zerbitzari ilegorriak azken bezeroa, atso astun bat, agurtzen duen bitartean.

Andrea kalera irten bezain laster, ilegorriak atea itxi eta, tutik esan gabe, denda-osterantz jo du. Zuk isilik jarraitu diozu.

–Ederra zaude gaur, Kristina –esan diozu, biluzten den bitartean–. Ala nahiago duzu *Sa Kene* deitzea, zure lagun afrikarrek esaten dizuten bezala?

Zutaz sentitzen duen mespretxu guztiaren islaz begiratu dizu eta horrek areago berotu zaitu, zakila tentetzeraino. Prakak erantzten hasi zara eta berak kondoi bat ipini du zure eskuan.

–Gaur ez dugu behar –lurrera bota duzu goma–. Gaur zupaldia nahiago dut, zure espezialitatea.

Badakizu mina ematen diola bere antzinako ogibidea gogorarazteak, baina ezpainak estutu eta gustura botako zizkizun biraoak irentsi egin ditu. Berriz sentitu duzu plazera segundo gutxi barru ezpain haragitsu

horien fereka epelak zure zakila inguratuko duela pentsatzean.

–Azken aldia da –esan dizu, behingoz.

–Badakizu ezetz.

–Egunen baten haginka erauziko dizut zintzilikario nazkagarri hori.

–Ez zara ausartuko, horrelakorik eginez gero badakizu zer gertatuko zaizuen.

Amaitu da elkarrizketa. Farmazialaria zure aurrean belaunikatu eta bere azkengabeko zorraren ordainketari ekin dio. Orduan sakelako telefonoak jo dizu, pantailatxoan ikusi duzu deia norena den eta “a ze kasualitatea!” pentsatu duzu. Nor eta Toure izan behar, zu orain zauden lekuan hainbat aldiz egongo zena. Afrikarrari erantzuteko tentazioa izan duzu, haren amoranteak sentiarazten dizun gozamenaren lekuko izan dadin. Baina ez, hobe berataz ahaztea oraingoz. Poltsikoan gorde duzu berriro telefonoa, geroago izango duzu aukera zure txibatoarekin hitz egiteko.

Ile-adats gorria laztandu diozu Kristinari eta berak kendu egin dizkizu eskuak, berriz ipini eta berriz kendu. Erreakzio horrek ere kitzikatu zaitu, baina ez duzu arinegi korritu nahi, une horretaz ahalik eta luzeen gozatu nahi duzu. Izan ere, ez da normala horrelako emakume puska zuk nahi duzunean eta nahi duzun eran edukitzea; eta doan. Dena den, badakizu

hobe dela berarekin kontuz ibiltzea, urdanga horrek askotan erakutsi baitu zein azkarra den. Ez zaitez inoiz berataz fidatu.

Buruan ipini dizkiozu eskuak eta berak kendu egin dizkizu.

2

Begirada jaso nuen esku artean neukan egunkaritik. Liburutegiko hormak, lurra, mahai-aulkiak... dar-dar baten zeuden, alboko aretoan egiten ari ziren flamenko-saioaren erruz. Hala eta guzti, ez zirudien inor molestatzen zuenik zalaparta hark; ez, behintzat, nik, nengoen tokitik, ikus nitzakeen pertsonak, sanfrantziskotar bitxiak denak ere. Emakume ijito itsusi eta lodi batek mutil beltz galant bat limurtzeko ahaleginetan ziharduen txoko baten, komikiz betetako apartegi garaiaren babesean. Zera pentsatu nuen, haren senideak enteratuz gero egundoko jipoia emango ziotela, baina hori ez zen nire arazoa. Pixka bat barrurago, interneteko eremuan, hegoamerikar gizon batek inolako lotsarik gabe ikusten zituen ordenagailuan porno orriak. Kanpaia jotzen hastea besterik ez zitzaion falta.

Eta ez zen harritzekoa izango, San Frantziskoko liburutegian kristo guztiak egiten baitzuen sudur-puntan ipintzen zitzaiona. Latinoaren alboko tipa ikusi besterik ez zegoen. Zuria zen, bilbotarra, pentsa zitekeen, baina hor zebilen sakelakotik ozen berbaz inolako lotsarik gabe, pantailan lan-eskaintzak aztertzen zituen bitartean. Tira, hegoamerikarra eta autoktonoa ere ez ziren nire arazoa, eta haien arteko ordenagailuaren aurrean barrez lehertzen ari zen senegaldarra ere ez. Belzkote hari grazia handia egiten zioten, antza, ikusten ari zen sketch afrikar lerdoek: neska lirain bat paseoan ari zen minigonaz jantzita, aldakei modu exajeratuan eraginez, eta begira geratzen zitzaizkion gizonak estropezu egiten zuten, edo farola baten kontra muturrekoa hartzen zuten, edo lurrean egindako zulo handi batera jausten ziren...

Interneteko laugarren nabigatzailea ez zen aurrekoak baino arruntagoa. Yonki bizartsu hura, Manuel, bistaz ezagutzen nuen; sarri joaten zen toki hartara, bere txanoaz, bufandaz eta motxila erraldoiaz hornituta, eta beti jokatzeko zuen berdina: YouTubeen flamenkoa bilatu, gehienetan Camaron izeneko musikari batena, eta pantailako artistak imitatu egiten zituen kantuan eta txaloka; kaskoak jantzita, sikeran. Horretan zebilen orduko hartan ere, aldika hots makalak atereaz, aldika ozenago. Tira, niri bost axola, hura ere ez

zen nire arazoa. Nire arazoa liburutegiko azken txo-koan zegoen, leiho erraldoien alboko ordenagailuaren aurrean. Magrebtar txiki bat zen, txandaka pantailara eta bere lepo gainetik atzera so egiten zuena. Urduri zegoen, mesfidati, inork erreparatuko ote zion egiten ari zenari. Eta ni horretan nenbilen, hain zuzen, haren portaera disimuluz aztertzen. Teorian ordenagailu bat erabiltzeko nire txandaren zain nengoen, eta interes faltsua erakusten nuen aurrean neukan egunkariarekin edo kristalen bestaldeko paisaiarekin: Bilboko itsasadarren bazterrak, Zazpi Kaleak, San Antongo zubia eta eliza... San Frantziskoko Afrika Txikiko biztanleontzat hain hurbil eta hain urrun zegoen Bilbo Zuria, azken baten.

Egiazko arreta, ordea, magrebtarraren pantailan ezarrita neukan. Ezin nuen argi ikusi zertan zebilen, baina suposa nezakeen. Lepoa luzatu nuen apur bat, bera ere YouTuben zegoela zirudien, gizon armatuak ikusten ziren 4x4 baten, basamortu aldean... Une horretan ahots batek bizkortu ninduen:

–Zer moduz, Toure?

Begoña zen, liburutegiko arduradunetako bat, sinpatikoena, nirekin behintzat. Emakume zuriari errieta egin zion telefonoz hitz egiteagatik, Manueli kantuan eta txaloka jarduteagatik, eta batzuei eta besteiei ordenagailuak libre uzteko ordua heldu zitzaie

esan zien. Magrebtar txikiak atoan obeditu zuen, eta herrenka abiatu zen irteerarantz. Emakume zuria zutitu eta telefonoz hitz egiteari utzi gabe alde egin zuen. Gainerakoei gehiago kostatu zitzaien jarleku beroak uztea, Begoña serio ipini arte ez zuten obeditu, latinoak eta senegaldarrak purrustaka alde egin zuten, eta yonkiak madarikazioka. Eguneroko eta orduroko eszena baino ez zen eta Begoñak keinu jator bat egin zidan bere mahairantz itzultzerakoan, sorbaldak jasoz eta “zer egin!” adieraziz bezala.

Magrebtarraren ordenagailuaren aurrean jesarri nintzen eta, interneten sartuta, atzerantz egin nuen historialean. Lehentxeago antzeman nuena baieztatu egin zitzaidan: morroi hura ISISko zoroen propaganda irensten aritu zen gelditu gabe, haien tiroketak, haien hilketak, haien hitzaldi eta arengak...

Sakelakoa hartu eta zenbaki bat markatu nuen, seinalea bospasei aldiz entzun zen, baina ez zuen inork erantzun. Geroago probatuko nuen berriro.

Telefonoa gorde eta hamar bat minutu eman nituen nire posta elektronikoa aztertzen. Ezer berezirik ez. Mariam emazteak diru gehiago behar zuela zioen, Burkina Fason gero eta garestiago zegoela bizitza, gure umeek gastu handiak ematen zizkiotela, Gorom-Gorometik kanpoko eskola batera bidali beharko genituela, agian Uagadugu hiriburura...

Ohiko mezu errepikakor eta itogarriaz gain, ustezko pagotxa batzuk zeuden, nire bizitza sexuala hobetzea proposatzen zidatenak, edo euro-kopuru handiak irabaztea, edo antzeko ipuinak. Ganorazko lan eskaintzarik, ostera, bat ere ez. Aspaldi hartan ez zitzaidan ezer ateratzen, ez ikerketa-kasurik ez etorkizuna asmatzeko eskaririk ez ezertxo ere. Toure igarle-detektibeak xarma galdua zuela zirudien, inoiz halakorik izan bazuen.

Artxibo eta karpeta guztiak itxi eta zutitu egin nintzen. Emakume ijitoak hor jarraitzen zuen ahalegintan, mutiko beltzari promesa ederrak eginez belarrira. Errukiz begiratu nien eta irteerarantz abiatu nintzen.

Sakelakoa berriz eskuratu eta bigarren aldiz saiatu nintzen lehengo zenbakiarekin. Oraingoan bai, berehala jaso nuen erantzuna:

–Kaixo, Toure –esan zidan beste aldeko ahotsak–. Ezetz asmatu zertan ari nintzen duela hamar minutu, deitu didazunean!

–Ideiarik ez.

–Tira, ez dizut inbidiarik eman nahi. Kontatuko dizut beste momentu baten. Orain esan, zer duzu ni-retzat?

–Herrenak berdin jarraitzen du –erantzun nion, eta segundo batzuetan itxaron behar izan nuen haren ahotsa ostera ere entzuteko. Oraingoan serio jo zuen:

–Gaur gauean, Mena kalean.

–Ez dago kamerarik inguruan?

–Ez.

–Ziur?

Solaskideak moztu egin zidan deia.

3

Liburutegitik irten eta Mariaren Bihotzeko plaza zeharkatzen hasi nintzen. Lurra bustita zegoen, baina azken egunetako euri fin etengabeak atsedernaldi labur bat hartu zuen eta jendeari plazako espazio zabalaz gozatzeko aukera eman zion. Ijitoen eremua izaten jarraitzen zuen toki hark, begi bistakoa zen han jaun eta jabe sentitzen zirela: ume batzuk liburutegiko atezainen pazientzia neurtzen ari ziren, ate nahiz leihoak kolpatuz eta barrukoei burla eginez behin eta berriz. Beste batzuek, jolasgunean, han sartzen ausartu zen mutiko beltz bat inguratu, kikildu eta alde egin zezan bultzatzen ari ziren. Bien bitartean, euren amak eta ahizpa-arreba nagusiak ume txikienez arduratzen ziren jarlekuen inguruan, euren aitek dominoan jokatzen zuten plazako arkupeetan eta euren anaia-neba nagusiek txakurrak paseatzen zituzten.

Tentuz ibili behar izan nuen txakur haiek botatako mokordoei iskin egiteko. Batzuk zapaldurik eta sakabanaturik zeuden jada; beste batzuk, ostera, osorik eta fresko, despistaturen baten oinetakoan zain.

Minatutako eremu hura salbu zeharkatzea lortu nuen, erreperderaino ailegatu eta, kontrol-postuko er-tzaintzaren furgonetatik ahalik eta urrunen igaro ondoren, zera aditu nuen:

–Aizu, Toure!

Florines tabernatik zetorren ahotsa. Luis, lokalaren jabea, leihotik imintzioka ari zitzaidan, hurbiltzeko eskatuz. Harritu egin ninduen nire izena jakiteak, ez bainintzen inoiz bere tabernan egon.

Barraraino sarrarazi ninduen eta han, bestelako azalpenik eman aurretik, olagarro-pintxo bat ipini zidan muturren aurrean.

–Gustatzen zaizu, ezta?

–Bai, jakina. –Inoiz probatu gabe neukan zomorro itsusi hura, baina niri dena gustatzen zait, den-dena, gosea pasatzen ohituta dauden guztiei bezala.

–Ba jan, gonbidaturik zaude eta.

Ahoan sartu nuen bentosadun haragi haren pus-keta bat, mesfidantzaz, berak barrapetik katilu zuri eta biribil bat ateratzen zuen bitartean.

–Eta ziur ribeiroa ere gogoko duzula.

Ez nuen ezer ulertzen eta zera pentsatu nuen, agian Luis beltzez okertu zela. Bestela, zergatik ohore haiek guztiak nire moduko gixajo batentzat? Badaezpada ez nuen ahoa ireki, edo bai, ireki egin nuen baina pintxoa eta ardoa lehenbailehen irensteko.

–Dena ona, ezta?

–Ba bai, oso ona.

–Auzokoek diote Euskadiko olagarrorik onena dela *Florineskoa*, eta Anuntzik eta biok askotan komentatu dugu gure jatetxea Bilboko beste edozein tokitan balego, egunero bezeroz beteta edukiko genukeela. Ez zaude ados?

Baietz erantzun nion, noski, sukaldeko sarreran kokatutako emazte isilaren begiradapean. Ilehori irribarretsu hark senarraren antzeko adina izango zuen, berrogeita hamataka urte, eta gorpuzkera ere berdintua zeukan, handi eta sendo samarra.

–Orain geurea da San Frantziskon geratzen den jatetxe galego bakarra –erantsi zuen tabernariak–, baina lehen, zuek etorri baino lehen, pilo bat zegoen. Espaloi honetan bertan, ehun metroan, bederatzi taberna zeuden, eta horietatik sei galegoak ziren, eta jabe guztiak nire herrixkakoak ziren, berrehun bat biztanleko aldea batekoak! Sinistu dezakezu? Baina gero, horixe, zuek etortzen hasi zineten, bertokoek alde egin zuten eta orain bederatzi tabernetatik sei latinoak

dira, eta galego bakarra geurea da. Alde batetik, hobe horrela, konpetentzia gutxiago. Ez duzu uste?

“Zuek” hori gu ginela suposatzen zen, afrikarrok gehi hegoamerikarrak gehi asiarrak eta abar. Bera, jakina, “gu” zen, “bertokoen” zati, nahiz eta Galiziatik gehi Gaztelatik gehi batek daki nondik eurak ere milaka etorri Bilbora etorkizun hobe baten bila, gu legetxe. Nazkaturik nengoen halako argudioak entzuten eta ez nuen ezta ahaleginik ere egin kontra egiteko. Besterik gabe, zain egon nintzen Luisek gonbit bitxi haren arrazoia noiz argituko, eta ez nuen gehiegi itxaron beharrik izan.

–Tira –esan zuen, behingoz–, imajinatuko duzunez, ez dizut deitu sukaldaritza galegoaren promozioa egiteko.

–Imajinatu dut.

–Zuk uste baino fama handiagoa daukazu San Frantziskon, Toure, eta, esan didatenez, magoa izateaz gainera, detektibe pribatua ere bazara. Egia da, ezta?

–Bai, gauza biak konbinatzen ditut, igarle-gaitasuna daukat eta horrek asko laguntzen dit nire ikerketa-zereginetan.

Geratzen zitzaizkidan aurkezpen-txarteltxo urrietako bat poltsikotik atera eta barra gainean utzi nuen. Sinistu ezinik nengoen, non eta *Florinesen*, taberna zuri baten, amaitu behar ote zen nire bolada txarra?

Tabernariak kartoi zimurtua hartu eta, burua apur bat atzera botaz, begirada fokatu zuen irakurtzen has-teko:

–“Toure maisua, afrikar igarle boteretsua. Edo-nolako mandatuak onartzen ditut, emaitza bizko-rrak...”.

Jakin-minez nengoen proposamena entzuteko, baina itxaron beste irtenbiderik ez nuen izan, juxtu une hartan kaletik zetorren trabesti batek eten gintuen eta.

–Komuna erabili dezaket, ezta? –galdetu zuen, barrurako bidean gelditu gabe.

–Ezta pentsatu ere! –bota zion Luisek, nire txar-teltxo barra gainean utziz–. Lehengoan esan nizun ez zintudala berriro ikusi nahi nire tabernan, halandaze ospa hemendik!

Luisen berba zakarrekin ez ezik, trabestiak Anun-tziren gorputz mardularekin egin zuen topo pasabide estuaren erdian, eta atzera egin behar izan zuen, bira-oka, sekulako astakeriak atereaz trabestiek izan ohi duten moko finetik.

–Badakizu zer egin zigun lehengoan? –azaldu zidan *Florinesen* jabeak, trabesti marmartia bistaz galduta-koan–. Bada tabernan sartu, mosto bat eskatu eta ko-munera joan zen; batek daki zenbat denbora eman zuen hor barruan, eta irtetea, kalerantz zuzen zihoala,

“aizu, barran daukazu mostoa!” esan nion, eta ez zidan, ba, erantzun “nik ez dut ezer eskatu”, eta eztabaidaren erdian geundela zera entzun zitzaion beste bezero bati komuneko atetik: “joder ze nazka! Zulotik kanpo egin dute kaka!”. Bueno, sutan jarri nintzen! Eta hori dena gutxi balitz, kalerantz korrika irten aurretik ez zen, ba, morroia koadro hori osten saiatu!

Hormako argazki zaharra seinalatu zuen, boxeolari bi erakusten zituena borrokan ring baten. Bitxiena zen ringa gabarra baten gainean muntaturik zegoela, itsasadarrean bertan, San Antongo zubiaren alboan. Ikusle piloa ageri zen inguruan.

–Zuk ez dakizu –jarraitu zuen Luisek–, baina lehen sekulako zaletasuna zegoen San Frantziskon boxeorekin. Eta txapeldun handi bat ere izan genuen: Etxebarria, argazkiko morroietako bat, sendoena. Behin Urtainekin lehiatu zen eta badakizu zein izan zen emaitza? –ez zidan erantzuteko astirik eman–. Nulua, parra geratu ziren. Eta badakizu zer egin zuen Etxebarriak? Bada Urtaini oratu eta sorbalda gainera igo, berak freskoago amaitu zuela erakusteko. Kriston boxeolaria zen Etxebarria!

Onespen keinuak egin nizekion istorioa entzun ahala. Ez zidan batere ardura, baina interesatu plantak eginez aditu nuen, solaskidea harira noiz itzuliko zain. Eta Anuntziren laguntza izan nuen:

–Luis, ez enrollatu –leporatu zion senarrari, bere irudiarekin bat ez zetorren ahots gazte eta atsegin batez–, ziur Tourek zeregin asko dauzkala.

–Arrazoi duzu –okertu zen *Florinesen* jabea, eskua bere buruko ile beltz eta labur-laburretik pasatuz–. Bueno, lehen esaten hasi naizenez, kontua da norbait behar dugula ostu diguten gauza bat berreskuratzeke, eta zugaran pentsatu dugula.

–Ederto, pozten naiz.

–Oso sinplea da kontua, entzun. –Anuntzi sartu zen berriro, senarraren hizkera zakarrarekin kontrastatzen zuen goxotasun bitxi batez–. Luisek sarrerako atearen gainean kartel argigarri bat ipini zuen atzo goizean, berri-berria, gure jakiak iragartzeko. Bada egun bat ere ez du iraun bere tokian, atzo gauean desagertu egin zen eta.

–Eta nik topatzea nahi zenukete.

–Horixe da,

–Norbaiten susmorik baduzue?

–Denena –bota zuen andreak–. Plazaren parean egoten diren ertzainak kenduta, edozein izan liteke lapurra, badakizu zelakoa den San Frantzisko.

–Ez diezue eskatu, ertzainei eurei, kameraren grabazioak aztertzeke?

–Bai, jakina, baina zera esan digute, lapurreta gertatu baino lehentxeago norbaitek pintura beltzez

zikindu zuela tarte hau kontrolatzen duen kameraren objektiboa, eta ez dela ezer ikusten.

Lusek nik erabilitako tresnak garbitzeari eman zion iturrian, emaztea begira geratu zitzaidan, eta funtsezko kontuaz hitz egiteko momentua iritsi zela pentsatu nuen.

–Ederto, ez dirudi kasu erraza, baina, nahi baduzue, saiatuko naiz kartela aurkitzen. –Eztula egin nuen–. Imajinatuko duzueenez, detektibe guztiok daukagu gure katxea eta... –Hitz hura entzun bezain laster biegi garraztu zitzaaien keinua– ...eta zera, nik, lehenengo kontsultaren truke, hogeituro kobratzen ditut.

–Noiz egingo dugu lehenengo kontsulta hori?
–Lusek hartu zuen berritro elkarrizketaren pisua.

–Hauxe izan da, esan nahi dut hogeituro zor didazuela. Nahiago baduzue, aurrerapen moduan planteatu dezakegu.

–Aurrerapen moduan pintxoia eta ardoa izan dituzu, ez da nahikoa?

–Eskertzen dizuet gonbita baina...

–Baina zer? Emaitzarik lortu aurretik sosa eskatzea ez zait normala iruditzen, batez ere auzo txiro honetan.

Joder, gainera halakoak entzun behar! Zer kontatu behar zidan niri jeta hark auzoko txirotasunaz?

–Agian hobe dugu beste norbait bilatzea –erantsi zuen.

–Itxaron. –Agian galegoa plantak egiten ari zen, baina ni ez nengoen inolako aukerarik galtzeko moduan–. Berdin dio, hurrengo hitzorduetan joango gara zehazten diru-kontuak. Dena den, ez pentsa nik debalde egiten dudarik lan.

–Jakina, Toure! –Ahots gazteko andrea sartu zen osterara ere–. Ez kezkatu, izango duzu ordainsaria, emaitzak ikusten ditugunean, noski.

–Konforme. Oraingoz ezer kobratu barik hasiko naiz lanean, baina baldintza batekin. –Aurrerapenaren kontuarekin amore eman arren, gutxieneko duintasunari eutsi behar niola begitandu zitzaidan.

–Zer baldintza?

–Gose naiz, bazkalordua da eta, nirekin kontatzekotan, beste erronda batera gonbidatu beharko nauzue.

Elkarri so egin zioten senar-emazteek, eta euren adostasun keinuek apustua ondo atera zitzaidala pentsarazi zidaten. Harrotasun puntu batez ikusi nituen Anuntzi sukaldera itzultzen eta Luis ardo botilari heltzen. Eta etsipena disimulatuz ahoratu nituen atera zizkidaten olagarro-tentakulu punta ñimiñoa eta ribeiro katilukada erdia.